# Aurretiazko genero eraginaren txostena

# Informe de evaluación previa de impacto de genero

**Foru Dekretua zeinaren bidez aldatzen baita Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra administrazio bideko berrikuspenari dagokionez garatzen duen Erregelamendua, irailaren 26ko 41/2006 Foru Dekretuaren bidez onartua**

**Decreto Foral por el que se modifica el Reglamento de desarrollo de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa en materia de revisión en vía administrativa, aprobado por Decreto Foral 41/2006, de 26 de septiembre**

## 1. Sarrera

Txosten honen helburua da 2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, bere 27. artikuluan ezartzen duena betetzea. Hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren foru arauen aurreproiektuak zein izaera orokorreko xedapen proiektuak osatu eta izapide-tzeko orduan, generoaren eraginaren aldez aurreko ebaluazioa aurkeztu

## 1. Introducción

Este informe tiene como objetivo dar cumplimiento a lo establecido el artículo 27 de la Norma Foral 2/2015, de 9 de marzo, para la igualdad de mujeres y hombres. Según el mismo, los anteproyectos de Norma Foral y los proyectos de disposiciones de carácter general de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en su proceso de elaboración y tramitación, se

beharko da haiei atxikita.

Genero eraginaren aldez aurretiko ebaluazio txostenak atal hauek eduki beharko ditu:

- arau proiektuaren edo izaera orokorreko xedapenaren deskribapen orokorra.
- genero eraginaren aldez aurreko ebaluazioa.
- atzemandako ezberdintasunak ezabatzeko neurriak, baita, egindako genero eraginaren ebaluazioaren arabera, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko neurriak ere.

## 2. Arau aldaketak

Maiatzaren 9ko 1/2017 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra zati batean aldatzeko onartu eta indarrean jarri zenak, aldaketak ekarri ditu haren xedapenetako batzuetan, eta horrek ondorioak ditu, baita ere, xedapen

acompañarán del correspondiente informe de evaluación previa de impacto de género.

Ese informe de evaluación previa del impacto en función del género deberá de constar de las siguientes partes:

- la descripción general del proyecto de norma o de disposición de carácter general.
- la evaluación previa del impacto en función del género.
- las medidas para eliminar las desigualdades identificadas y promover la igualdad de mujeres y hombres en función de la evaluación de impacto de género realizada

## 2. Modificaciones normativas

La aprobación y entrada en vigor de la Norma Foral 1/2017, de 9 de mayo, de reforma parcial de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ha supuesto la modificación de varios de los contenidos incluidos en sus

horien erregelamenduzko garapenetan.

disposiciones, lo que a su vez incide en los desarrollos reglamentarios de las mismas.

Tributuen alorrean ematen diren egintzak administrazio bidean berrikusteari buruzko aldaketen kasuan, besteak beste, gai hauek ukitzen dira: prozedurak bitarteko elektronikoz tramitatzea, ebazpenek obligazio lotuen kasuan dituzten ondoriok, berrikuspen prozedurak etetea adiskidetasunezko prozedurak abiatzen direnean, edo deuseztatze errekurtsoaren eta exekuzioaren aurkako errekurtsoaren erregulazioa.

En el caso de las modificaciones realizadas en lo relativo a la revisión en vía administrativa de los actos dictados en el ámbito tributario, inciden en cuestiones tales como la tramitación de los procedimientos por medios electrónicos, la incidencia de las resoluciones en el caso de existencia de obligaciones conexas, la suspensión de los procedimientos de revisión en caso de iniciarse procedimientos amistosos o la regulación de los recursos de anulación o contra la ejecución.

Horrek beharrezko egiten du aldaketak sartzea Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra egintzak administrazio bidean berrikusteari dagokionez garatzen duen Erregelamenduan (41/2006 Foru Dekretua), aipatutako 1/2017 Foru Arauak ekarritako aldaketetara egokitzeko.

Ello exige adecuar el vigente Reglamento de desarrollo de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa en materia de revisión en vía administrativa (Decreto Foral 41/2006), a las modificaciones realizadas por la citada Norma Foral 1/2017.

Aldaketa esanguratsuenen artean, honakoak aipatu daitezke:

- Nazioarteko hitzarmen eta itunetan aurreikusita dauden adiskidetasunezko prozedurak tramitatzeak berrikuspen prozedurak etenarazten dituztela, eta agintari eskudunak behartuta geratzen direla organo berrikusleari zirkunstantzia horren berri ematera.

- Erantzuleen inpugnazioen ondorioz eteten diren zerga zehapenen alorrean, etendura hori ez da zabalduko Zergen Foru Arau Orokorraren 42.4 artikuluko erantzuleen inpugnazioetara, erantzukizun horrek dituen berariazko ezaugarriengatik.

- Egintza irmoen doktrinaren ondorioz,

Entre las modificaciones más relevantes, caben destacar las siguientes:

- Los procedimientos de revisión quedan suspendidos por la tramitación de los procedimientos amistosos previstos en los convenios y tratados internacionales, previendo la norma que la autoridad competente debe comunicar dicha circunstancia al órgano revisor.

- En materia de suspensión de sanciones tributarias como consecuencia de su impugnación por los y las responsables, dicha suspensión no se extenderá a las impugnaciones que puedan realizar los y las responsables del artículo 42.4 de la Norma Foral General Tributaria, dadas las características específicas de dicha responsabilidad.

- Como consecuencia de la

eta aintzat hartuta erantzulearekin jarduketak hasi aurretik litekeena dela zerga-bilketa jarduketak egin izana beste zergapeko batzuekin, ezartzen da etendurak ez duela eraginik izango erantzulearen inpugnazioagatik exekuzioa etetea erabaki arte egindako zerga-bilketa jarduketetan.

doctrina de los actos firmes, y dado que previamente a las actuaciones con el o la responsable se podrían haber producido actuaciones de recaudación con otros obligados tributarios, se establece que la suspensión no afectará a las actuaciones de recaudación que se hubieran producido hasta el momento en el que se acuerde la suspensión de la ejecución por la impugnación del o de la responsable.

- Obligazio lotuen arloan, erregelamenduak ere lege aurreikuspen bat jasotzen du ezarrita uzteko ezen, zor baten likidazioaren aurka aurkeztutako errekurtso edo erreklamazioa onesten den kasuetan zor horrek, aldi berean, zergapekoaren aldeko itzulketa bat aitortzea eragin badu, ezinbestekoa izango dela likidazio hori eteteko emandako bermeak lotuta dagoen itzulketaren zenbatekoa ere estaltzea.

- Se recoge reglamentariamente, en los supuestos de obligaciones conexas, la previsión legal que exige que, en caso de estimación de un recurso o una reclamación contra una liquidación de una deuda que, a su vez, ha determinado el reconocimiento de una devolución a favor del obligado tributario, la garantía aportada para suspender dicha liquidación quedará afecta al reintegro de la correspondiente devolución conexa.

- Inpugnatutako egintza berrikuspen bidean eteteko bermeen alorrean, ezartzen da berme horiek estali beharko dituztela kreditu publikoaren bermea exekutatuz gero sor litezkeen errekarguak.

- En materia de garantías para la suspensión en vía revisora del acto impugnado, se establece que dichas garantías deberán cubrir los recargos que procederían en caso de ejecución de la garantía del crédito público.

- Erregela zehatzak ezartzen dira erreklamazio ekonomiko-administratiboen zenbatekoak finkatzeko.

- Se establecen reglas concretas para el establecimiento de las cuantías en las reclamaciones económico-administrativas.

- Funtsezko araudiaren idazkera berriarekin bat etortze aldera, «banakatze» terminoaren ordez «metaketa indargabetui» espresioa erabiltzen da orain, eta jatorrizko metaketari egiten zitzaion erreferentzia ezabatzen da, orain arauan jasotzen delako.

- Por coherencia con la nueva redacción sustantiva, se cambia el término «desacumulación» por la expresión «dejar sin efecto la acumulación» y se suprime la referencia a la acumulación originaria por contemplarse ahora en el precepto legal.

Bestalde, berrikuspen prozeduren tramitazioan bitarteko elektronikoen erabilerarekin lotuta dauden zenbait alderdik komenigarri egiten dute erregelamenduaren edukia aldatzea.

Por otra parte, diversos aspectos relacionados con la utilización de medios electrónicos en la tramitación de los procedimientos de revisión, aconsejan introducir modificaciones en el contenido del reglamento.

- beharrezkoa gertatzen da bide ekonomiko-administratibotik egiten diren jakinarazpenen araubidea aldatzea, betiere haien prozeduraren berezitasunak kontuan hartuta.

- se genera la necesidad de modificar el régimen de notificaciones en la vía económico–administrativa siguiendo dicho objetivo y teniendo en cuenta sus peculiaridades procedimentales.

- Zuzenean arautzen dira kostuak kuantifikatzeko irizpideak, eta erredakzioa aldatzen da erregelamenduan jasota uzteko partikularren jarduketen aurkako erreklamazioetan erreklamatzailea ez ezik erreklamatua ere izan daitekeela kondenatua.

- Se regulan directamente los criterios de cuantificación de costas y se modifica la redacción para contemplar el caso de reclamaciones contra actuaciones de particulares, teniendo en cuenta la posibilidad, en tal supuesto, de que sea condenado no sólo el reclamante, sino también la persona contra la que se dirige la reclamación.

- Erregelamenduz garatzen da nola tramitatu behar den arazo prejudiziala Europar Batasuneko Justizia Auzitegian aurkezten denean.

- Se desarrolla reglamentariamente la tramitación de la cuestión prejudicial ante el Tribunal de Justicia de la Unión Europea.

- Obligazio lotuei eragiten dieten ebazpenen exekuzioari dagokionez, argitzen da Administrazioak bai ofizioz eta bai alderdiak eskatuta erregularizatuko duela lotutako obligazioa.

- En relación a la ejecución de las resoluciones que afecten a obligaciones conexas se aclara que la Administración llevará a cabo la regularización de la obligación conexa tanto de oficio como a instancia de parte.

- Exekuzioaren aurka orain errekurtso espezifiko bat arautzeak alferrikako bihurtu du exekuzioari buruzko intzidentearen araubide juridikoa, eta, horren ondorioz, intzidente horri dagokion edukia ezabatzen da.

- La regulación de un recurso específico contra la ejecución hace innecesario el régimen jurídico relativo al incidente sobre la misma. En consecuencia, queda suprimido el contenido relativo a dicho incidente.

# 3. Genero eragina

## 3.1 Genero egokitasuna

Proiektu honen helburua da egokitzea Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra egintzak administrazio bidean berrikusteari dagokionez garatzen duen Erregelamendua (41/2006 Foru Dekretua), maiatzaren 9ko 1/2017 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorra zati batean aldatzekoak, ekarritako aldaketetara.

Hortaz:

- amaierako talde hartzailearen barruan pertsona fisikoak daude.
- xedapen normatiboak eragina duela emakumeek eta gizonek baliabideak eskuratzeko edota kontrolatzeko moduan.

Beraz, ondorioztatu behar da egokia dela arau proiektua genero ikuspegitik aztertzea.

# 3. Impacto de género

## 3.1 Pertinencia de género

Este proyecto tiene por objetivo adecuar el Reglamento de desarrollo de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa en materia de revisión en vía administrativa (Decreto Foral 41/2006), a las modificaciones realizadas por la Norma Foral 1/2017 de 9 de mayo, de reforma parcial de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Por tanto:

- dentro del grupo destinatario final están las personas físicas.
- la disposición normativa afecta al acceso y/o control de los recursos por parte de las mujeres y los hombres.

Por tanto, se determina que es pertinente el análisis de género del proyecto normativo.

## 3.2. Genero eraginaren balorazioa

### 3.2.1. Hasierako egoera

EUSTATek egiten duen "Errenta pertsonal eta familiarra"-ren datuen arabera, 2015ean Gipuzkoako emakumeen batez besteko errenta 15.852 eurokoa izan zen, eta gizonezkoena, berriz, 25.802 eurokoa (%38,6ko arraila). Laneko errentetan aldea edo desberdintasuna %40,4koa da (9.113 euro eta 15.302 euro, hurrenez hurren, emakumeen enplegua eskuratzeko aukera murritzagoak eta lan diskriminazioa direla medio). Gipuzkoan emakumeen %24,2ak 1.500 eurotik behera jasotzen ditu, eta gizonezkoetan talde hori % 13,6koa da. Emakumeen erdia baino gehiagok (%51,3) urtean 12.000 eurotik behera jasotzen dituen taldean kontzentratzen da, sarrera horiek dituzten gizonezkoak %28,6 diren bitartean.

## 3.2 Valoración del impacto de género

### 3.2.1 Situación inicial

Según los datos de la "Renta personal y familiar" que elabora el EUSTAT, en 2015 la renta media de las mujeres en Gipuzkoa fue de 15.852 euros y la de los hombres de 25.802 euros (brecha del 38,6%). En las rentas procedentes del trabajo la diferencia es del 40,4% (9.113 euros frente a 15.302, dado el menor acceso al empleo y la discriminación laboral). El 24,2% de las mujeres de Gipuzkoa percibía unos ingresos inferiores a 1.500 euros al año, frente al 13,6% de los hombres. Más de la mitad (51,3%) de las mujeres se concentra en ingresos inferiores a 12.000 euros anuales frente al 28,6% de los hombres.

Lan merkatuari dagokionez, nahiz eta gizonezkoen langabezia zifrak gora egitearen ondorioz langabeziako tasetan genero arraila murriztu egin den, krisi ekonomikoaren eraginez langabeziak gehiago erasaten die oraindik ere emakumeei gizonezkoei baino. Horrela, eta EUSTATen Biztanleria Jardueraren Araberako datuetan ikusten da 2017an Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen (16-64 urte) okupazio tasa %63,1ekoa izan zela, gizonezkoena %69,9koa izan zen bitartean. Eta langabezia egoeran dagoen biztanleriari dagokionez, Gipuzkoako emakumeen langabezia tasa 2017an %9,7koa izan zen, gizonena %8,2a izan zen bitartean.

En lo referente al mercado de trabajo, a pesar de que la brecha de género en las tasas de paro se ha reducido como resultado del aumento del desempleo en los hombres, a consecuencia de la crisis económica, el paro sigue afectando más a las mujeres que a los hombres. Así, y según los datos para la Comunidad Autónoma de Euskadi de la Encuesta de la Población en Relación con la Actividad de EUSTAT, en 2017 la tasa de ocupación de las mujeres (16-64 años) fue del 63,1% frente al 69,9% de los hombres. Respecto a la población en situación de desempleo, la tasa de paro en Gipuzkoa para las mujeres en 2017 fue del 9,7% frente al 8,2% de los hombres.

Era berean, emakumeak dira nagusi Diru-sarrerak Bermatzeko Errentan (SBE) titularrak direnen artean. Horrela, eta Lanbideko 2017ko datuen arabera, SBEa jasotzen duten pertsonen %55,8 emakumeak dira Gipuzkoan.

Del mismo modo, las mujeres son mayoría en el colectivo de personas titulares de la Renta de Garantía de Ingresos (RGI). Así, y según los datos de Lanbide, en 2017 el 55,8% de las personas receptoras de la RGI en Gipuzkoa son mujeres.

Nabarmentzeko modukoa da pobrezia indizeak handiagoak direla emakumea pertsona nagusia den etxeetan. Horrela, "Gipuzkoako pobreziaren eta bazterkeriaren inkesta, 2014" argitalpenaren arabera, pobrezia eta prekarietatea tradizioz arriskukoak diren taldeetan pilatzen dira gero eta gehiago. Bide horretatik, pobrezia modu desberdinek sexuaren arabera duten intzidentziaren konparaziozko azterketak egoera okerragoa erakusten du kasu guztietan emakumeak buru dituzten etxeetan. Horrela, pobrezia iraunkorraren maila bereziki altua da emakumezkoak daramatzaten etxeetan bizi direnen kasuan (%12,8), gizonezkoen daramatzaten %7,8ren aldean.

Cabe destacar, que los índices de pobreza son superiores en los hogares cuya persona principal es una mujer. Según la "Encuesta de pobreza y exclusión social de Gipuzkoa 2014" la pobreza y la precariedad se concentran cada vez más en los grupos tradicionalmente de riesgo. Así, el análisis de la incidencia de las distintas formas de pobreza en función del sexo revela en todos los casos la peor situación comparada de los hogares encabezados por mujeres. Así, la tasa de pobreza persistente es particularmente elevada entre las personas que viven en hogares encabezados por mujeres (12,8%), frente al 7,8% en hogares encabezados por hombres.

Pobrezia eta bazterketa arriskua neurtzen duen AROPE tasaren arabera (diru-sarrera apalak, eskasia material larria eta lan intentsitate apala) emakumezkoen %21,5a dago egoera horietako bat jota egoteko arriskuan, gizonezkoen %17,5aren aldean. Eta emakumezkoak buru dituzten etxeetan, bertan bizi diren %29,4k dute arrisku hori,

Según la tasa AROPE de riesgo de pobreza y exclusión social (bajos ingresos, privación material severa y baja intensidad laboral) el 21,5% de las mujeres está en situación de sufrir al menos una de esas situaciones, frente al 17,5% de los hombres. Y cuando la persona principal del hogar es una mujer, el 29,4% de los

gizonezkoak buru direnean portzentaje hori %16,6ra jaisten den bitartean.

integrantes del hogar pueden estar en esa situación, mientras que si la persona principal es un hombre el porcentaje baja al 16,6%.

### 3.2.2 Proposatutako neurrien eragina

### 3.2.2 Efectos de las modificaciones propuestas

Baliabide ekonomikoen eskuragarritasunean genero desberdintasunak badaudela ageriko gauza denean ere, esan beharra dago txosten honetan aztertzen den foru dekretu proiektua martxan jartzeko arrazoia dela, beharrezkoak diren doiketak egitea tributuen alorrean ematen diren egintzen administrazio bidean berrikusteari buruzko araudian.

Aun cuando es evidente la existencia de desigualdades de género en relación con el acceso a los recursos económicos, también es cierto que este proyecto de decreto foral se pone en marcha por la necesidad de realizar ajustes en la regulación de la revisión en vía administrativa de los actos en al ámbito tributario.

Proiektu honetan proposatutako neurriak izaera teknikokoak dira, eta beren helburua da antolamendu juridikoari araugintzako zehaztasun handiagoa ematea, betiere zerga arloko jarduketei eraginkortasun handia eskaintze aldera eta, azken finean, zerga sistema orokorrak hobeto funtzionatze aldera.

Las modificaciones propuestas en este proyecto son de carácter técnico y su objetivo es dotar al ordenamiento jurídico de una mayor precisión normativa, que provocará una mayor eficacia de las actuaciones tributarias, que al final repercutirán en un mejor funcionamiento del sistema tributario en general.

Gainera, proposatutako neurriek ez dute eragin zuzena zergaren oinarrizko egituran (oinarria ezargarriaren zehaztean, tarifa, kenkariak…); eta, beraz, bere ondorioa zerga-bilketan mugatua izango da.

Además, las modificaciones planteadas no afectan de manera directa a la estructura básica de los impuestos (determinación de la base imponible, tarifa, deducciones…), por lo que su efecto recaudatorio será limitado.

### 3.2.3 Genero eraginaren balorazioa

### 3.2.3 Valoración del impacto de genero

Kontuan izanda proposatzen diren neurriak funtsean teknikoak eta betebehar formalei buruzkoak direla, esan dezakegu proiektatutako foru dekretuak ez dakarrela aldaketa sustantiborik genero desberdintasunaren inguruan gaur dagoen egoera aldarazteko.

Teniendo en cuenta que las medidas propuestas son básicamente técnicas y de obligaciones formales, podemos considerar que el proyecto no incorpora cambios sustantivos que puedan contribuir a una modificación de la situación actual respecto de las desigualdades de género.

Azkenik, eta hizkuntzaren erabilera sexistari dagokionez, proiektuaren terminoak egokitu dira. Halere, eta segurtasun juridikoa dela-eta, badira termino batzuk aldatu ez direnak, Ekonomi Ituanren 3. artikuluak ezarritako harmonizazio arauak direla-eta, Zergei

Finalmente y respecto al uso sexista del lenguaje, se ha procedido a adaptar los términos del proyecto, si bien, y por seguridad jurídica, no se han modificado aquellos términos que por las reglas de armonización establecidas en el artículo 3 del

buruzko Lege Orokorrak ezarritako terminologia eta kontzeptu berean errespetatu behar direnak.

Concierto Económico, deben respetarse en la misma terminología y conceptos que los establecidos en la Ley General Tributaria.

Donostia, 2018ko otsailaren 26a

San Sebastián, a 26 de febrero de 2018

**Sin/Fir.: José Antonio Lapeira Oyarzabal**
**AZTERLANETAKO ATALBURUA /JEFE SECCIÓN DE ESTUDIOS**